

Aseguru produktuari buruzko informazio dokumentua

Enpresa: OCCIDENT GCO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS, SOCIEDAD UNIPERSONAL

Produktua: etxeko aseguru

Erregistratua: Espainian. Aseguru erakundearen baimen zk.: C0468

Aseguru produktuari buruzko kontratu aurreko eta kontratu informazio osoa beste dokumentu batzuetan ematen da, hala nola informazio oharrean, baita aseguru kontratuaren baldintza orokorrak, partikularrak eta, hala badagokio, bereziak ere.

Zertan datza aseguru mota hau? Occidenten Etxeko aseguruak babes osoa ematen die aseguratuari, etxea eta familia ezbehar nagusietatik babestuta egoteak ematen duen lasaitasunez bizitzeko. Ez gara ahazten maskotez, familiako kide bereziak, babes onena ere dutenak. Gainera, zerbitzu eskusibo batzuk ere sartzen dira aseguruaren barnean, bizitza askoz errazagoa izan dadin gure aseguratuarentzat: besteak beste, Etxeko Laguntza 24 orduz, Laguntza Informatikoa, telefono bidezko Orientazio Medikoko Zerbitzua, Aholkularitza Juridikoa, galdarak konpontzeko presazko zerbitzua eta BrikoEtxe zerbitzua.



Zer dago aseguraturuta?

Kontratugileak aseguru ditzakeen aseguru estalduren eta arrisku nagusien laburpena, kontratuan aukeratutako modalitatearen arabera.

- ✓ Sutea eta osagarriak.
- ✓ Kalte atmosferikoak.
- ✓ Inpaktua, bandalismoa eta beste kalte material batzuk.
- ✓ Urak eragindako kalteak eta erantzukizun zibil eratorria.
- ✓ Ezbeharrak sortutako gastuak.
- ✓ Kalte elektrikoak instalazioetan.
- ✓ Ekipo elektrikoaren edo elektronikoen matxura (etxetresna elektrikoak konpontzeko zerbitzua barne).
- ✓ Lapurreta eta ebasketa.
- ✓ Erantzukizun zibil familiarra.
- ✓ Erantzukizun zibil patronala.
- ✓ Ingurumen arloko erantzukizun zibila.
- ✓ Apurketak: kristalak eta ispiluak, komun ontziak, komun eta sukalde gainekoak, bitrozeramikazko plakak, eguzki plakak eta telefono mugikorraren pantailaren arrakalak.
- ✓ Ondasun hoztuak.
- ✓ Aldi baterako lekualdatutako ondasunak.
- ✓ Erabilera profesionalerako materiala.
- ✓ Maskotak.
- ✓ Istripuzko arrisku orotako aseguru.
- ✓ Errentamendu kontratuaren defentsa.
- ✓ Errentatzailearen babes osoa.
- ✓ Etxeko laguntza.
- ✓ BrikoEtxe zerbitzua.
- ✓ Galdarak konpontzeko presazko zerbitzua.



Zer ez dago aseguraturuta?

- ✗ Kontratuaren baldintza orokorretan edo partikularretan sartu gabeko edozein gastu edo estaldura.



Badago murrizketarik estalduran?

- ! Kontratuak zehazten du zer sartzen den estaldura bakoitzean, baita babesetik kanpo gelditzen diren kasu batzuk ere. Nolanahi ere, arau orokor gisa, kontuan izan behar da aseguruak inoiz ez dituela bere gain hartuko aseguratuaren asmo txarreko egintzak, ondasunen higadura normala, berezko akatsa edo kontserbazio akastuna, agintari publikoek hondamenditzat edo hondamen nazionaltzat jotako gertaerak, eta lur hondoratzeak edo luiziak, salbu eta hirugarrenek alboko finketan edo etxebizitzaren lurpean eginiko obren ondorioz gertatu direnean.

- ✓ Online Laguntza Informatikoa.
- ✓ Erreklamazio eta defentsa juridikoa.

Eta Occidenten bezeroa izateagatik, kortesiazko zerbitzu hauek daude eskuragarri:

- ✓ Telefono bidezko aholkularitza juridikoa.
- ✓ Telefono bidezko orientazio medikoa.



Non egongo naiz babestuta?

- ✓ Pertsonari berari dagozkion estalduretan, konpainiaren babesaren eremu geografikoa mundu osoa da. Adibidez, erantzukizun zibilaren kasuan, aintzat hartuko dira mundu osoan gertaturiko kalteengatiko erantzukizunak, Espainiako auzitegiek erreklamaturakoak, jakina. Estalduraren barruan sartzen da ere etxetik kanpoko lapurreta munduko edozein lekutan, betiere dagokion salaketa aurkeztuta.



Zeintzuk dira nire betebeharrak?

- Aseguruaren kontratugileak edo asegurudunak kalteak jakinarazi behar dizkio konpainiari, gorde egin behar ditu ezbeharraren hondar eta arrasto guztiak, eta kontuz ibili behar du kalte gehiago gerta ez dadin.
- Lapurreta edo ekintza bandalikoaren kasuan, deklaratu egin behar du poliziaren aurrean, lapurreta edo ekintza gertatu eta hurrengo berrogeita zortzi orduetan.
- Aseguruak bere gain hartutako erantzukizun bat sortzen duten gertaeretan, berehala jakinarazi behar zaizkio konpainiari aseguratuak jasotako abisu eta zitazio guztiak.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Kontratatzeko unean eta kontratuan adierazitako ordainketa moduaren arabera. Kontratua luzatzen bada, kontratua berritzearen hasiera datan. Banku helbideratze edo kreditu/zordunketa txartel bidez ordain daiteke.



Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Behin lehen ordainketa eginda, kontratuaren "Aseguruaren iraupena" atalean adierazitako orduan eta egunean hasi eta amaituko da estaldura.



Nola desegin dezaket kontratua?

Aseguru erakundeari bidalitako jakinarazpen idatziaren bidez, abian den aseguru aldia amaitu baino hilabete lehenago gutxienez.